

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEZAKO UDALA

#### **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak jendaurrean jarri eta kobratzea**

Lezako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2020an ordaindu behar dutenen errolda behin-behinean onetsi ondoren, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Borondatezko aldiko dirubilketa apirilaren 1etik maiatzaren 31ra izango da, biak barne. Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, aipatutako borondatezko aldia.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarquak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Leza, 2020ko otsailaren 12a

*Alkatea*

**JOSÉ ANTONIO SUSO PÉREZ DE ARENAZA**